


**SAN
SO
MEN
DI**


40+

AUZOA HOBETZEKO
BIRGAITZE INTEGRALA

1. Helburuak



Auzoa eguneratzea, bere hirigintza, zerbitzuak eta espazio publikoa egungo beharretara egokitzeko.



Erronka demografikoa, sozioekonomikoa eta klimatikoari aurre egiteko ekintza katalogo koherente bat prestatzea.



Auzokideen ekarpenen bidez aberastu eta hobetuko den bide-orri oinarritzko bat eskaintzea.

2. Datu orokorrak



Sansomendi

-  Eraikuntza urtea: 1980tik aurrera
-  Biztanleak guztira: 13.022
-  Biztanleak adinaren arabera:
 - 0-19 ((%17,9)
 - 20-64 (%64)
 - +65 (%18,1)
-  Azalera osoa: 577.000 m²
-  Etxebizitzak guztira: 8.000
-  40 urtetik gorako etxebizitzak: 56%

3. Ekintzak motaren arabera




Etxebizitza:

Etxebizitza parkearen birgaitzea eta hobekuntza, eraikin zaharrenetan energia eraginkortasuna handitzeko ekintzei arreta berezia jarrita.



Hirigintza:

Borinbizkarrako lotunearen espazioa erabiltzea, antzinako saihesbidearen ondoan, auzoarentzako zerbitzu berriak jartzeko.



Energia:

Sansomendin energia komunitate bat abiatzea, eta ekintza katalogo bat onartzea udal eraikinetan eta espazio publikoetan eguzki panelekin estalkiak jarri eta komunitatean txertatzeko.



Espazio publikoa:

Zaharberritze sakonak Oto Hiribidean, eta Paula Montal eta Antonio Machado zonaldean. Auzoko parkeetako birgaitzea eta modernizazioa, ortu komunitarioen sorrera, edota etxebizitza eraikinen patioetako birnaturalizazioa.



Zerbitzu publikoak:

Ekipamendu berriak (etxebizitzak alokairu babestuan eta adineko pertsonentzako etxebizitzak), garraio publikoaren eskaintza eta maiztasuna hobetzea, eta esku-hartzeak eskoletan, gizarte-etxean eta kirol espazioetan.

4. Ekintzen zerrenda orokorra




- 1 Etxebizitzak birgaitzeko laguntza plana
- 2 Auzoan energia komunitatea sortzea
- 3 Energia berriztagarria sortzeko ekintza katalogoa
- 4 Oto hiribidearen erreforma
- 5 Antonio Machado eta Paula Montal arteko zonaldearen erreforma osoa
- 6 Paula Montal kalearen erreforma
- 7 Goro plazatxoaren eta Ramon Rubial kaleen arteko ibilbidea oinezkoentzako eta bizikletentzako
- 8 Sansomendiko parkea berregituratzea
- 9 Antzinako saihesbideren ondoko hirgintza eraldaketa
- 10 Adineko pertsonentzako etxebizitza komunitario berriak
- 11 Garraio publikoan hobekuntzak
- 12 Osasun zerbitzuetan, hondakin bilketan eta espazio publikoan hobekuntzak
- 13 Eskoletan esku-hartzeak
- 14 Haurreskolaren ondoko haur parkea berritzea
- 15 Lakuako gizarte-etxea hobetzea
- 16 Lakua 03 kirol zonaldea
- 17 Etxebizitza eraikinetako patioen birnaturalizazioa
- 18 Auzoko merkataritza egoeraren azterketa

5. Ekintza nagusiak



- 5.1 Etxebizitzak birgaitzeko laguntza plana
- 5.2 Energia komunitatea eta energia berriztagarriak
- 5.3 Oto Hiribidearen erreforma
- 5.4 Paula Montalen erreforma orokorra
- 5.5 Sansomendiko parkearen eta beste batzuen diseinu berria
- 5.6 Hirigintza eraldatzea eta etxebizitza
- 5.7 Zerbitzu publikoen hobekuntza
- 5.8 Eskolak eta gizarte-etxea

5.1 Etxebizitzak birgaitzeko laguntza plana



3.000 etxebizitzak zaharberritzeren bat beharko dutela kalkulatzen da, bereziki auzoaren hego eta hego-mendebaldean daudenak, irisgarritasunari eta erosotasunari lotutako kontuak direla-eta, edota energia eraginkortasuna handitzeko.




AMARU Energia Aurrezteko eta Hiri Birgaitzeko Udal Agentziak zaharberritze plan integralak diseinatu eta garatuko ditu auzo guztientzako, baita Sansomendirako ere. Agentziak auzoan bulegoa irekiko du, kalean bertan, komunitateei eta oro har auzokideei zerbitzua emateko.




Energia eraginkortasunari begirako birgaitze integral baten proiektu pilotua egingo da, onartu berri den terrazen araudi berria aintzat hartzen saiatuko dena, European honezkero dauden ereduak jarraituz. Auzoko eraikin bat baliatuko da hobekuntza potentzialaren erakusgarri gisa.


5.2 Energia komunitatea eta energia berriztagarriak



Sansomendin energia komunitatea abiatzea elementu nagusi gisa eraginkortasuna, aurrezkia eta iturri berriztagarriekin sorrera handitzeko.




Plaka fotovoltaikoekin es-talkiak jartzea auzoko aparkalekuetan, eskole-tan, eta gizarte-etxean. Auzoko gainerako teila-tuak erabiltzeko eta ba-liatzeko plana.



Lurzoru publikoan eta udalaren espazioetan es-ku-hartuz, 1.650.000 kWo-ko potentzia sor dai-teke, urtero ia 500 etxebi-zitzak kontsumitzen dutena bezain beste.

5.3 Oto Hiribidearen erreforma




Banatutako bidegorri bat jartzea industrigunera mugikortasun jasangarria errazteko, espazio publiko erakargarriagoa emateko eta kalearen bi aldeak josteko, Sansomendi auzotik Ehari eta Borinbizkarrara jarraikortasun natural bat proiektatuz.




Esku-hartzean gerta daitezkeen aparkaleku galarak berdintzeko, beste aparkaleku bat eskainiko da Paula Montal eta Antonio Machado kaleen arteko espazioan.

5.4 Paula Montalen erreforma orokorra





Plaza berri baten diseinua Paula Montal eta Antonio machado kaleen artean, adin guztiei begirako topaleku izateko asmoarekin. Parkeak auzoaren belaulandi arteko izaera indartuko du, eta prozesu parte-hartzaile batekin lagunduko zaio.



Espazio publikoaren eguneratze oso bat. Errepidearen eta aparkalekuen egituratzea eta banatutako bidegorri bat jartzea aintzat hartuko dira, eta berrikusiko dira zebrabideen edota autobus geltioien kokapenak. Horrekin batera, farolak berritu eta zuhaitz motak hobetuko dira, orain dela 40 urtetik aldatu ez diren kontuak.

5.5 Sansomendiko parkearen eta beste batzuen diseinu berria



Nagusiki duen berdegune izaerari eutsita, parkeari funtzio anitzetarako berregituratzea egingo zaio, honako jarduerak barne hartuta: hiri ortuetarako espazioa, adineko pertsonentzako ariketa zonaldea, haurrentzako jolas parkea integratzea eta handitzea, berdeguneen kudeaketa komunitario-rako proiektu pilotua, eta bizikletak aire zabalean konpontzeko geltoki bat.




Sansomendiko haur eskolaren pareko jolas parkea ere berrituko da. Esku-hartze horren bidez, hezkuntza komunitateak lagunduta, egungo jolasen pareko lorategien integrazioa hobetuko da, mugimendu eta joku askea zonalde osora hedatuta, eta jolas mota horri lotutako elementu naturalak gehituta (harea, enborrak, etab.).



Etxebizitza eraikinetako patioak birnaturalizatze-ko proiektu pilotuak abiatuko dira Oto Hiribidean eta Antonio Machadon, ingurunea naturalizatzea eta komunitatea jostea errazteko.

5.6 Hirigintza eraldatzea eta etxebizitza




Esku-hartze ausart bat egingo da egungo zubia kentzeko, eta jarraikortasuna bermatzeko Tomas de Zumarraga Dohatsua-ren eta Oto Hiribidearen artean. Lurzoruaren kalifikazioa aldatuko da etxebizitza eta ekipamendu berriak kokatu ahal izateko ardatz honetan eta Zabalgana Hiribidekoan.



Hirigintza esku-hartze honen bidez babestutako alokairuan etxebizitza berriak eskaini ahal izateko espazioa lortuko da, landetza etxebizitza proiektu bat bertan jartzeko aukera aztertutuko da, eta lurzorua gordeko da adineko pertsonentzako etxebizitza komunitarioak eraikitzeko.


5.7 Zerbitzu publikoen hobekuntza



Sansomendin lotunea paratzea Salburua Zabal-gana eta Jundizekin hiriko iparraldetik lotuko dituen autobus elektrikoaren ibilbide berriarentzako. Era berean, egungo autobus ibilbidearen eskaintza hobetuko da, tranbia Salburura iristeak liberatuko dituen unitateak baliatuta.




Sansomendiko osasun-etxearen birgaitze integralari ekingo zaio. Gabeziak konponezinak direla egiaztatuko balitz, ez da baztertzen kokapen berri baterako lekualdatzea, osasun arreta indartu eta hobetu ahal izateko.




Oro har, hiri altzarien egoera (bankuak, pape-rontziak, iturriak, etab.) eta argiztapenarena berrikusiko da, auzoaren hasieran orain dela 40 urte jarri ziren elementuak aldatzeko, besteak beste argiztapena hobetu eta energia aurreztea lortzeko. Garbiketa zerbitzua ere berrikusiko da, maiztasunak hobetzeko eta edukiontzien egungo kokapena berraztertuta.


5.8 Eskolak eta gizarte-etxea



Auzoko eskola eta hezkuntza-zentro ezberdinak birgaitze orokorren parte izango dira, ekintza zehatzen bidez: eskola bide seguruak, patioen berritzea eta birnaturalizazioa, eskolen eta auzoaren arteko lankidetza indartzea, edota sukalde propioak jartzea.



Gaur egun Lakuako Gizarte-etxeak eskaintzen dituen zerbitzuak eta arreta indartzea.



Kirol zonaldeari dagokionez, bere mantenimendua hobetuko da, eta segurtasun handiagoa emango zaie bizikleten aparkalekuei. Bestalde, eskaintza handitzea ahalbidetzeko kirol ekipamendu berriren bat egitea aztertuko da, egungoen ondoan.

ehbildu